



Giza Eskubideen XIII. Zinemaldia Hizkuntza erabileraren neurketa

1. SARRERA	2
2. METODOLOGIA	3
3. AHOZKO ERABILERA	4
3.1. Filmak	4
3.2. Ekitaldi nagusien ongi etorri eta aurkezpenak	4
3.2.1. Aurkezpen Ekitaldia	4
3.2.2. Itxiera Ekitaldia	5
3.3. Filmen ongi etorri eta aurkezpenak	5
3.4. Aurkezpen prentsaurrekoa	6
3.5. Zinemaldiaren Saria aurkezteko prentsaurrekoa.....	6
3.6. Prentsaurrekoak	6
3.7. Palmaresa.....	7
3.8. Mahai inguru eta solasaldiak	7
3.9. Jendaurreko zerbitzuak	8
4. IDATZIZKO MATERIALA	9
4.1. Katalogo ofiziala	9
4.2. Programazio liburuxka	9
4.3. Esku orriak, sarrerak,	9
4.4. Erakusketak.....	10
4.5. WEB gunea	11
4.6. Prentsarako materiala	11
5. ONDORIOAK ETA PROPOSAMENAK	12

1. SARRERA

BAGERA Donostiako Euskaltzaleen Elkarteak, euskararen erabilera areagotzea ardatz duela, Giza Eskubideen Zinemaldiaren hizkuntza erabileraren neurketa egin du aurtengo edizioan. Orain arte, Donostiako aisialdian eragina duten beste ekintza nagusietan ere hala egin izan dugu: Dferia, Aste Nagusia, Jazzaldia, Donostiako Zinemaldia eta Beldurrezko eta Fantasiatzko Zinemaldia.

Garrantzitsua da oso euskararen erabilera normalizatzea eguneroko bizitzan. Era berean, gizarteari eskaintzen zaizkion aisialdirako kultur ekitaldietan euskararen presentzia areagotzea oso garrantzitsua da. Ostera ere, gogorarazi behar dugu euskara hizkuntza ofiziala dela Euskal Autonomia Erkidegoan. Gainera, Donostiako udal ordenantzak euskarari ofizialtasun hori aitortzen diote eta Udalak antolatutako ekintza guztietan euskarak lehentasuna izan behar duela esaten dute.

Beraz, Giza Eskubideen Zinemaldian antolatzen diren jardueretan euskararen erabilera idatzia zein ahozkoa areagotzea du helburu BAGERAK; hau da, Giza Eskubideen Zinemaldian euskararen presentzia normalizatzea.

2. METODOLOGIA

Asteak bere gain hartzen dituen momentu guztiak neurtzen saiatu gara: filmen aurkezpenak, euskaraz azpigitulua dutenak edota bikoiztutako filmak, programazio aurrerapenaren txostena, filmez filmeko gida, kartelak etab. neurtu ditugu.

Neurketa egiterakoan, hizkuntza erabilera 3 ataletan azaldu dugu eta kasu guztietan ele bitan egin zela adierazten dugunean, zehazki, euskaraz eta gazteleraz egin zela esan nahi dugu.

a) Ahozko erabilera: Filmak, ekitaldi nagusiak, prentsaurrekoak, film emanaldietako ongi etorri eta aurkezpenak (ongi etorria, sarrerako lehen hitzak eta aurkezpena pelikulen xehetasunak ematerakoan) eta jendaurreko zerbitzuak aztertzen ditugu atal honetan. Zein hizkuntza erabiltzen den eta bakoitza zein neurritan erabiltzen den hartzen dugu kontuan.

b) Idatzizko materiala: Idatzizko material ugari izaten da Astean. Antolakuntzaren argitalpenak (filmez filmeko gida, programazioaren aurrerapen txostena, ...), kartelak, web gunea, errotulazioak etab. izaten ditugu aztergai.

c) Erakusketak: Atal honetan Astearen baitan antolatzen diren erakusketetan egiten den hizkuntza erabilera neurtzen dugu.

3. AHOZKO ERABILERA

3.1. Filmak

Atal hau Zinema Astearen ekintzarik garrantzitsuena dela gogoan izan behar dugu. Aurten, asteak 26 film luze eman ditu eta horietatik, 11 euskaraz edo euskaraz azpidatziak izan dira. 5 sail ofizialean eta 6 Kultur etxeetako zikloan (Filmazpit Eusko Jaurlaritzak, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren Euskara Sustatzeko Zuzendaritzak finantzaturako programan). Bestetik, 3 film proiektatu dira haur eta gazteen saioetan, 3ak euskaraz izan dira (bi euskarara bikoiztuak eta bestea euskaraz azpidatzia). Azkenik, 16 labur eskaini dira eta horietatik 4 euskarazko azpidatziekin.

Sailez sail honakoak izan dira aurten eskainitako filmak eta euskarazko emanaldien kopurua:

- Film luzeen sail ofiziala: 16 filmetatik 5 film euskaraz edo euskarara azpidatziak izan ziren ("*Hippocrate*", "*Dreamcatcher*", "*Negar franco egingo zuen aitak*", "*The storm makers*" eta "*Coría y el mar*" filmak).
 - Inaugurazioa: Proiektatutako filma mandarineraz gazteleraz azpidatzita.
 - *Human Rights Film Network* atalean: Film luze bat proiektatu zuten hassaniyeraz eta gazteleraz. Azpidatziak euskaraz.
 - Giza Eskubideen Zinemaldiaren Saria (Lourdes Portillo): Proiektatutako filma gazteleraz. Azpidatzirik gabe.
 - Bukaera: Proiektatutako filma bertso originalean (frantsesez) izan zen eta iaz bezala euskarazko azpidatziekin ("*Hippocrate*").
- Film laburren sail ofiziala: 16 filmetatik lau euskaraz azpidatziak izan ziren ("*A la lumière des comptes*", "*El-maftul*", "*El príncipe del cristal*" eta "*Sumud*").
- Kultur etxeetako zikloan: 9 filmetatik 7 euskaraz edo bertso originalean euskarazko azpidatziekin izan ziren, bat gazteleraz eta beste bat ingelesez, gaztelaniaz eta euskaraz, gaztelerazko azpidatziekin.
- Haur eta gazte saioetan 3 film luzeetatik 3ak euskaraz (2 euskarara bikoiztuak eta bestea euskarazko azpidatziekin).

3.2. Ekitaldi nagusien ongi etorri eta aurkezpenak

3.2.1. Aurkezpen Ekitaldia

Giza Eskubideen Zinemaldiari hasiera ofiziala emateko, aurkezpen ekitaldi bat antolatu zuten proiektzioen aurretik. Ainhoa Aierbe aktorea

izan zen aurkezpen horren gidaria. Euskara eta gaztelera, biak modu orekatuan erabili zituen, hizkuntza bakoitzean eduki ezberdina azalduz.

Jarraian, Juan Carlos Izagirre Alkatea aritu zen, modu elebidunean bera ere.

Bestetik, zeinu hizkuntzara itzulpena egiteaz arduratu zen neska gazte bat ere ikusi ahal izan genuen.

3.2.2. Itxiera Ekitaldia

Ainhoa Aierbe aktorea izan zen gala aurkezteaz arduratu zena, gorren hizkuntzara itzulpena egiten zuen gazte batekin batera. Aierbek euskara hutsez aritu zen.

Ondoren, Juan Carlos Izagirre alkatea aurkeztu zuen. Juan Carlos Izagirrek bi hizkuntzak erabili zituen. Lehenengo euskaraz eta jarraian gazteleraz egin zuen.

Jarraian, Ainhoa Aierbek Amnesty Internationaleko kidea aurkeztu du euskara hutsez bat eta berak ere euskara hutsez egin zuen bere parte hartzea. Azkenik saridun bakoitzak bere hizkuntzan aritu zen:

Bring Sun Home filmearen ordezkariak idatzitako gutun bat irakurri zuen ingelesez eta agurra euskaraz bukatu zuen. Ainhoa Aierbek irakurritako gutuna euskarara itzuli zuen. Bigarren saridunak, Pellegrinik, gazteleraz egin zuen, euskaraz agurtuz. Azken saridunak, berriz, bideo baten bidez parte hartu zuen sari banaketan, ingeleraz eta azpigituluak euskara eta gazteleraz idatziak zeuden.

3.3. Filmen ongi etorri eta aurkezpenak

Filmen ongi etorri eta aurkezpenak aztertzerakoan, kontuan izan behar dugu ekitaldi batzuk film bat baino gehiagoren emanaldia izan arren (normalean, laburren bat lehenengo eta luze bat ondoren), ekitaldi osoak aurkezpen bakarra izan zuela.

BAGERAK behatutako filmetan, **aurkezpenen sarrerak** bi eletan izan ziren, gehienetan euskara eta gaztelera tartekatuz, hau da, ez da bata bestearen itzulpena egin, esaldi ezberdinak tartekatu dira.

Gonbidatuak hitza hartu zuten kasuetan, bitan euskara gailendu zen ("*Negar franko egingo zuen aita*" eta "Sumud" laburmetraiaren kasuetan), "Coria y el mar" filmaren aurkezpenean gonbidatuak gaztelera hutsez egin zuten eta "Io sto con la sposa" filmaren kasuan, berriz, gonbidatuak italiarrez hitz egin zuten eta itzulpenak gazteleraz soilik egin zituzten.

3.4. Aurkezpen prentsaurrekoa

Aurkezpen nagusian, Juan Karlos Izagirrek (Alkateak), Nerea Txapartegik (Udaleko Kultur Ordezkariek), Jose Miguel Beltranek (Zinemaldiko Zuzendariak) eta Chus Alvarezek (Amnesty Internationaleko ordezkariek) hartu zuten parte. Izagirrek eman zion hasiera prentsaurrekoari eta bi eletan egin zuen euskara eta gaztelera tartekatuz (Hizkuntza bakoitzean informazio propioa emanaz). Ondoren, Nerea Txapartegik hartu zuen hitza (Izagirrek bezala bi hizkuntzak tartekatuz), euskarari lehentasuna emanaz eta euskarazko azalpenak luzeagoak egin zituen. Jose Miguel Beltranek ere, bi hizkuntzak tartekatu zituen lehenik euskaraz eta jarraian gaztelera (gaztelera azalpenak luzeagoak izan ziren). Chus Alvarezek, berriz, gaztelera eman zituen azalpen guztiak.

Jarraian, galdera tartea zabaldu zen euskaraz eta hasierako eta bukaerako filmaren inguruko xehetasunak gaztelera eman zituzten eskatu zuen kazetari batek.

3.5. Zinemaldiaren Saria aurkezteko prentsaurrekoa

Juan Karlos Izagirrek (Donostiako alkatea) eman zion hasiera prentsaurrekoari. Euskara eta gaztelera tartekatu zituen, hizkuntza bakoitzean informazio ezberdina emanaz (gaztelera emandako informazioa luzeagoa). Jarraian, Jose Miguel Beltranek Lourdes Portillo (Donostiako Giza Eskubideen XIII. Zinemaldiko sariduna) aurkeztu zuen gaztelera. Lourdes Portillok ere gaztelera erantzun zion.

Hortik aurrera zenbait galdera eta erantzun egin ziren guztiak gaztelera eta gaztelera eman zioten amaiera prentsaurrekoari.

3.6. Prentsaurrekoak

Atal honetan Zinema Asteko ekintzak aurkezteko egin diren prentsaurrekoak hartu ditugu kontuan.

Asteazken zehar egindako prentsaurrekoetan Jose Miguel Beltranek (Zinemaldiaren arduradunak) ematen zion hasiera prentsaurrekoari, nahiko labur. Hizkuntza erabilera prentsaurrekoan parte hartu behar zuen gonbidatuaren araberakoa izan zen.

"Ez dira aspaldiko kontuak" dokumentala aurkezteko prentsaurrekoa euskaraz izan zen. Galdera tartean berriz, kazetari gehienek euskaraz galdetu zuten bi izan ezik. Batek lehen galdera gaztelera egin zuenean Lourdes Imazek (dokumentalaren zuzendaria) ea gaztelera erantzutea nahi zuen galdetu zion. Kazetariak ordea, nahi zuen hizkuntzan erantzuteko esan zion eta euskaraz erantzun zion. Gaztelera galdetu zuen hurrengo kazetariak, berriz, gaztelera erantzuteko eskatu zion eta horrela egin zuen.

“*Negar franko egingo zuen aitak*” dokumentalaren prentsaurrekoan ere, euskaraz izan zen prentsaurreko gehiena. Galdera tarte zabaldutenean 5 galdera euskaraz egin zuten kazetariak eta 3 gazteleraz (aurreko kazetari berdinek).

Beste hizkuntza batean izan diren kasuetan, “*Io sto con la sposa*” eta “*Bring the sun home*” prentsaurrekoetan, gonbidatuek italiarrez eta ingelesez hitz egin zuten eta itzulpenak gaztelerara soilik egin ziren.

Beste prentsaurrekoei dagokienez kazetarien galderak gazteleraz izaten dira orokorrean eta ondorioz gaztelera gailentzen da nabarmen.

3.7. Palmaresa

Palmaresa irakurtzeko prentsaurrekoan, Juan Miguel Gutierrez eta Ainhoa Zugasti (Amnesty Internationaleko Sariaren Epaimahaiko kideak), Maryan Azzez eta Sergio Lopez (Gazteen Epaimahaiko kideak) eta Josemi Beltran izan ziren.

Beltranek euskaraz eman zion hasiera eta ondoren gazteleraz. Epaimahai gazteko kideei hitza euskaraz eman zien. Epaimahai gaztearen bi ordezkarietatik batek euskaraz eta besteak gazteleraz azaldu zituzten banatutako sarien nondik norakoak. Jarraian *Amnesty Internationale*koak aurkeztu zituen euskaraz. Batek euskaraz eta besteak gazteleraz (laburrago) irakurri zuten.

Jarraian Josemi Beltranek hartu zuen hitza ikusleen sariaren inguruan hitz egin zuen bi hizkuntzatan (gazteleraz luzeago) eta galdera tarte zabaldutik gazteleraz.

Kazetari batek ikusleen saria irabazitako edukia euskaraz egiteko eskatu zion eta euskaraz egin ondoren bi galdera egin ziren, biak gazteleraz.

3.8. Mahai inguru eta solasaldiak

Zenbait filmen ondoren, solasaldiak egon ziren. Begoña del Tesok euskaraz eta gazteleraz aurkeztu zituen. Ondoren, gonbidatuek hartzen zuten hitza eta behatutako 7 solasaldietatik 5etan gaztelera gailendu zen eta beste bietan euskara (“*Caricaturistes, Fantassins de la democratie*” filmaren kasuan, solasaldiaren aurkezpena ia euskaraz soilik egin zuen Begoña del Tesok. 3 solaskideek berriz, Iratxe Fernandez de las Herasek gazteleraz eta Asisko Urmenetak eta Antton Olariagak euskaraz. Iratxek euskara apur bat dakien arren, gazteleraz hobeto moldatzen zela aipatu zuen. Galdera tarteari dagokionez, nahiz eta galderak euskaraz egin Iratxek erantzuten zuen kasuetan gazteleraz egiten zuen eta beste gonbidatuak ere gazteleraz jarraitu zuten zenbait kasutan. “*Negar franko egingo zuen aitak*” dokumentalean, berriz, hiru gonbidatuen hizkuntza euskaraz izan da gehien bat, baina ikusleek egindako galderak gazteleraz

izan direnez gonbidatu baten erantzunak euskaraz izan zen (hobeto moldatzen zelako) eta besteenak gazteleraz.

Gaztelera gailendu den 5 solasaldietatik 2tan beste hizkuntza bat erabili zuten (italiera eta zeinu hizkuntza) itzulpena gaztelerara egin zen.

3.9. Jendaurreko zerbitzuak

Jendeari erantzuteko zerbitzuetan nolako harrera jaso ahal izan dugun neurtu nahi izan dugu.

Topatu garen Zinemaldiko langileekin (informazio bulegoan, aretoen sarreratako langileekin...) euskaraz egin dugu eta erantzuna euskaraz jaso dugu.

4. IDATZIZKO MATERIALA

Oro har Zinemaldiko antolakuntzari dagokion idatzizko materiala ele bitan edota hiru eletan idatzirik dago.

4.1. Katalogo ofiziala

"Giza Eskubideen XIII. Zinemaldia"-ren katalogoan, astean zehar izango diren film eta bestelako ekintzei buruzko informazioa azaltzen da 90 orrialdetan. Azalean kartel ofiziala du, hiru eletan. Kontrazalean, berriz, antolatzaileen, babesleen, parte-hartzaileen eta laguntzaileen logotipoak daude. Liburuaren barruan, lehenik, film baten kartela azaltzen da ("Difret") fitxa teknikoa eta oharrak gazteleraz daude, jarraian Juan Karlos Izagirre alkatearen agurra irakur dezakegu hiru eletan (euskaraz, gazteleraz eta ingelesez). Ondoren, filmei buruzko informazioa hiru eletan, izenburuak jatorrizko hizkuntzan eta alboan datorren fitxa teknikoa euskaraz dago. Gainontzeko ekintzei buruzko informazioa hiru eletan dago. Informazioaz gain, hainbat iragarki edo filmen kartelak daude. Filmaren zazpi kartel daude, 3 gazteleraz, 3 bi hizkuntzetan (euskaraz informazio gehiago dakar) eta beste bat hizkuntzarik gabe. Iragarkiei dagokienez, 9 iragarki daude, 4 bi eletan (*bitez*, *Aieteko parkea*, II. Mundu Gerraren bukaeraren 70. Urtearenaren erakusketa eta eitb), 2 gazteleraz (Rec, Caiman cuadernos de cine,), 1 euskaraz (El documental del mes), beste bat lau hizkuntzatan (*Donostia/San Sebastian 2016*) eta beste 1 ingelesez (*Human Rights Film Network*).

4.2. Programazio liburuxka

40 orriko liburuxka bat da. Azalean kartel ofiziala du, hiru eletan. Kontrazalean, berriz, antolatzaileen, babesleen, parte-hartzaileen eta laguntzaileen logotipoak daude. Barnean, film bakoitzaren azalpen labur bat dago, ele bitan, euskaraz lehentasuna duelarik (euskarazko testua beltzez, gaztelerazko testua grisez). Herrialdea, filmaren hizkuntza eta azpidatzitako hizkuntza aldiz, euskaraz dago.

4.3. Esku orriak, sarrerak, ...

Atal honetan Zinema Astearen inguruan sortzen den beste material idatzia biltzen dugu, kontuan izanik hau dela jende gehienarengana iristen den materiala.

Emanaldietarako eskuratu ditugun sarrerak bi eletan egon dira, baita haurrentzako filmetako gonbidapenak ere.

Filmei botoa emateko orria eta Giza Eskubideen XIII. Zinemaldiaren ebaluaketa orrian azaltzen den informazio guztia bi eletan dago. Euskaraz lehentasuna du, hizki lodiz idatzita dago.

Fnac-ek kaleratutako hilabeteko programazioan bertan egin zen erakusketaren inguruko informazioa gazteleraz zegoen baita aterako aparteko esku orria ere.



Amnisty Internacional-ek Victoria Eugenia jarritako mahaian zegoen material gehiena bi hizkuntzetan zegoen. Baita bertan jarritako panela ere.



Human Rights Film Network- ek kaleratutako esku orria ingelesez zegoen.

- ACNUR erakundeak kaleratutako esku orria, gazteleraz.
- "Negar Franko Egingo Zuen Aitak" filmaren egunean, filmeko zuzendariak filmeko talde osoaren izenean idatzirik esku orriak banatu zituzten, euskara hutsean idatziak.

4.4. Erakusketak

- *Giza eskubideak, "Arte eta Giza Eskubideak. Haur eta Gazteen XI. Edizioa"*: Zinemaldiaren informazio bulegoan jarri zituzten marrazki sorten testu oinak euskaraz eta gazteleraz irakur zitezkeen. Marrazkietan zeuden testu motz gehienak euskaraz. Informazio panela ere, bi eletan, euskaraz lehenetsunez.
- *"COMÈTE. Ihesbide sarea"*: San Telmo Museoan izandako erakusketan ere, elebitasuna mantendu zen.

- *"NAZIEN PRESENTZIA BIDASOAN. II. Gerra Mundialaren bukaeraren 70. Urteurrena"*: Aieteko Kultur Etxean ikusgai jarri zuten erakusketan ere elebitasuna mantendu zuten, euskarak lehentasuna izanik.
- *"HAUR POBREZIA ESPAINIAN" ETA BESTE ZENBAIT ISTORIO: Fnac-en Giza Baloreen 2014ko PHotoEspaña OjodePez Sariaren argazki irabazleen eta finalisten lagin bat erakusten duen erakusketa ikusi ahal izan genuen. Euskarri guztiak gazteleraz zeuden: Argazki oinak, Informazio panela eta kartela.*



4.5. WEB gunea

Web gunearen informazio guztia hiru hizkuntzetan eskuratzeko aukera ematen du (euskaraz, gazteleraz eta ingelesez).

Baina helbidearen izena www.cineyderechoshumanos.com gazteleraz jarraitzen du izaten.

4.6. Prentsarako materiala

Prentsaurrekoetan eta antolakuntzak emandako poltsan eskuratu izan dugun materiala bildu dugu atal honetan: prentsa txostena, eguneko programazio txostenak, filmei buruzko informazio txostenak, erakusketei buruzko informazio txostenak eta prentsarako dossierra. Informazio guztia, ele bitan edo hiru eletan zegoen.

Eskuratu ditugun pelikulen, erakusketen eta bestelakoen prentsa oharren informazioa honakoa izan da: prentsa ohar gehienak euskaraz edo gazteleraz eskuratzeko aukera zegoen; Giza Eskubideen sariak ele bitan, Gazte epaimahaiaren dossierra bi eletan; azkenik, balantzearen prentsa oharra euskaraz jaso dugu.

Bestetik, posta elektronikoko bidez bidalitako prentsa oharretan, informazioa euskaraz eta gazteleraz jaso dugu. Antolakuntzarekin zuzenean izan ditugun mezu trukaketetan euskaraz egin dugu.

5. ONDORIOAK ETA PROPOSAMENAK

Orain arte azaldutako datuak aztertuz, atalez atal balorazio orokor bat egingo dugu jarraian.

Ahozkoan eta filmetan erabilitako hizkuntzari dagokionez, 18 film luzeak parte hartu zuten Sail Ofizialean eta bost izan ziren euskaraz edo euskarara azpidatziak. Horietako bat amaierako galan proiektatu zen. Bigarren aldia da Giza Eskubideen Zinemaldiaren amaierarako filma jatorrizko hizkuntzan (kasu honetan frantsesez) proiektatzen dela **euskarazko azpidatziekin soilik** eta hau oso positibotzat jotzen du BAGERA Elkarteak. Film laburren kasuan, beste 16 film labur proiektatu ziren, horietatik lau euskaraz azpidatziak.

Saio berezietan bi filma proiektatu ziren:

- *Human Rights Film Network atalean* proiektatutako film luzea gazteleraz eta euskaraz azpidatzia.
- Lourdes Portillori zinemaldiaren saria jasotzeko proiektatu zen filma gazteleraz.

Lehen aldia da, saio berezietako proiektzioa batean euskara ikusteko aukera izan duguna.

Kultur Etxeetako saioei dagokionez, 8 film izan ziren 7 euskaraz edo euskarazko azpidatziekin eta bat gazteleraz.

Haur eta gazteentzako saioetan, 3 film luzeetatik bi euskarara bikoiztuak eta bat euskaraz azpidatzia.

Azkenik, aurten antzerki obra bat antzeztu da Victoria Eugenia Antzokian euskaraz (Ez dira aspaldiko kontuak).


Oro har hartuta, aurten aurrerapausoak eman direla deritzogu eta iaz egindako aurrerapausoak mantendu. Hala nola, saio berezietan (Kultur Etxeetako emanaldietan) zein haur eta gazteen saioetan, film guztiak euskaraz azpidatziak edo bikoiztuak izan dira euskaraz ez ziren kasuetan eta aurten "Human rights film Network" atalean proiektatutako filma Euskal Herriko ekoizpen bat izan da (*Coria y el mar*) bertsio originalean (hassaniyaz eta gazteleraz) eta euskaraz azpidatzia. Beraz, aurten Sail Ofizialean filma bat gehiago ikusi ahal izan dugu euskaraz azpidatzia. (Iazko kopurua 4 izan zen eta aurten orotara 5) eta horietako film bat, aipatu bezala Amaierako ekitaldian ikusi ahal izan dugu (Hippocrate).

Film laburrei dagokienez, euskaraz azpidatzitako film laburrek ere, gorakada txiki bat izan dute. Iaz 2 izatetik aurten 4 izatera. Orotara proiektatutako 16 film laburretatik 4 euskaraz azpidatzi dira (%25).

Euskararen garapena (2010-2015):

	Film luze	Film Labur	KE saioak	Haur (Luze)
2010	2 (% 8,33)	0 (%0)	0 (%0)	3 (%100)
2011	1 (%4,55)	1 (%5,26)	0 (%0)	2 (%66,67)
2012	4 (%25)	4 (%26,67)	0 (%)	3 (%100)
2013	4 (%21,05)	4 (%26,66)	5 (%100)	3 (%100)
2014	4 (%20)	2 (%12,5)	9 (%100)	2 (%100)
2015	5 (%27,78)	4 (%25)	7 (%87,5)	3 (%100)

Iazko datuekin alderatuta, grafikoan ikus dezakegu, portzentajetan film luzeetan eta laburretan gorakada egon dela. Kultur Etxeetako Zikloan jaitsiera egon da:



Hala ere, oraindik lan handia dago egiteko euskaraz azpidatzitako edo euskaraz bikoiztutako filmen kopurua handitzeko, euskarak dagokion presentzia izan dezan. Baina positiboa da Zinemaldiko atal guztietan euskararen presentzia hedatzen ari dela nahiz eta atal batzuetan neurri apalean agertu (Sail Ofizialean, saio berezietan, Kultur Etxeetako Zikloan, film laburretan eta Amaierako ekitaldian, hala nola).

Zinemaldiaren aurkezpen prentsaurrekoan, ekitaldi nagusien eta filmen **aurkezpenetan**, aurreko urteetako bidetik jarraitu dute. Aurkezpenei dagokionez, oso ondo zaintzen da elebitasuna (Ainhua Aierbe irekiera ekitaldian eta amaiera ekitaldian baita Begoña del Teso ere ohiko emanaldietan). Informazioa ez dute errepikatzen hizkuntza batean eta bestean, eta BAGERA Elkartek oso positibotzat baloratzen du hori.

Era berean, hizkuntza batetik besterako jauzia oso modu naturalean egiten dute eta aurkezpenen hasiera beti euskaraz izaten da, euskarari lehentasuna emanaz.

Mahai inguruetako gonbidatuen kasuan eta ondorengo **solasaldi**etan, berriz, oreka hori apurtu egiten da. Gonbidatu gehienek gazteleraz hitz egiten dute, eta ondorioz, publikoarekin sortzen den harremana ere hizkuntza horretan egiten da. Gonbidatu gisa adituak doazen kasuetan, hauek elebidunak izatea proposatzen du BAGERA Elkartek.

Prentsaurrekoen kasuan ere, euskara hasierako agurretar mugatzen da gehienetan eta euskara bigarren mailan gelditu ohi da.

Idatzizko materialari dagokionez, antolakuntzak kaleratzen duen materialean elebitasuna mantendu da eta positibotzat jotzen dugu, katalogo ofizialean, fitxa tekniko guztiak euskara hutsean idatziak egotea eta programazio liburuxkan euskaraz izango diren film eta ikuskizunetan euskaraz direla idatzita agertzea (EUS). Baina Fnac-ek Zinemaldiaren inguruan kaleratzen dituen euskarri guztiak gaztelera hutsez izan dira eta antolakuntzatik irizpideak jarri beharko lituzkeela uste dugu.

Posta elektronikoz jaso ditugun prentsa ohar guztiak, euskaraz edo bi eletan jaso ditugu. Prentsaurrekoetan banatutako film ezberdinen prentsa dossier gehienak euskaraz jaso ditugu.

Web guneari dagokionez, informazioa guztia euskaraz eskuratu daitekeen arren helbidearen izena gazteleraz jarraitzen du izaten www.cineyderechoshumanos.com.

Orokorrean hartuta, BAGERAK ondokoa proposatzen dio Giza Eskubideen Zinemaldiko antolakuntzari: dauden hutsuneak zuzentzea eta aurrerapausoak egiten jarraitzea, Donostiako euskararen normalizazioa lortzeko begira. Hala nola, filmei dagokienez, euskarak leku zabalago baten beharra duenez, gutxienez, aurreko urteetako emanaldi kopurua handitzen joatea proposatzen dugu eta ahal den neurrian, euskarazko emanaldiak atal guztietan izan daitezela. Prentsaurrekoetan eta solasaldien kasuan, erabiltzen diren hizkuntzen artean oreka mantentzeko bideak aztertu beharko lirateke eta euskara ez mugatzea soilik lehenengo ongi etorriko bi hitzetara. (Hala nola, euskara hutsezko saio bereziak tartekatuz, prentsaurrekoa aurretik gaztelera gailenduko dela jakinda, hasieran aurkezpen osoa euskaraz izatea, moderatzaileak gonbidatuei euskaraz galdetzea beste gazteleraz edo euskaraz egiten ez dutenen kasuetan, solasaldietara ekartzen diren gonbidatuak elebidunak izaten saiatzea...).

Bide horretan, BAGERA Elkartearen esku dagoen heinean, laguntza behar izanez gero, beti prest izango gaituzue.